

Idiazabalgo Jason zortzi langile kaleratu dituzte

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 08/09/2024

Kaleratze hauekin soldadura-atalak plantillaren ia herena galduko du.

Idiazabalgo JASO Tower Cranes enpresako batzordeak salatu duenez, zuzendaritzak zortzi langile kaleratu ditu. Erabaki atzera botatzeko exijitu dio komiteak zuzendaritzari. Sei hilabete Aldi Baterako Enplegu Erregulazioan igaro ondoren, ekainean jakinarazi zien neurria ez berritzeko asmoa. Ordea, abuztuko oporretatik bueltan zortzi lankide kaleratu dituzte, erabakiaren gainean hitz egiteko edo negoziaturiko alternatibak bilatzeko inongo borondaterik gabe.

Langileen ordezkariak diotenez, “jada hartua zuen erabakia” jakinarazi besterik ez die egin langileei, “onartezina den jarrera” erakutsiz. “Horregatik, aukera baliatu nahi dugu zuzendaritzari eskatzeko jarrera aldatu, erabakia atzera bota eta bestelako bideak bilatzeko hitz egitera eser dadin”.

<https://eh.lahaine.org/ldiazabalgo-jason-zortzi-langile-kaleratu>